

Gaur Manteon danborrada

Egunean zehar etapa bakoitzean egindako **eintzez** gain, gaur arratsaldean ospatuko dugu SAN SEBASTIAN eguna Manteo kirolegian. Saioa **16:15ean** hasiko da. **Aurtengo** berrikuntza gisa adierazi behar dugu HH4-5eko gurasoek aukera izango dutela emankizuna bizitzeko bertako jokalekuo gradetatik (beheko sarreratik sartu beharko dute). Bestalde, hauek dituzue **doinuak**.




ZURRIMENDIrekin igandean mendira!

Datorren asteburu luzean dena danbor eta parranda kontuak ez izateko, plan ederra proposatzen dizuegu: Aitzondoko ur-jauziak (Irun) ezagutu ZURRIMENDI Zurriolako Mendi Taldearen eskutik. Xira eta ogitartekoa prestatu eta Euskaraz Bizi naturan eta lagunartean. Animo!



"Piztu itxaropena" sahararrengan

Hil honen **22 eta 23an** geletan jasoko digu Tindouf-en errefuxiatutako sahararren alde bildutakoa. Beraz, ohiko gaiak ekar ditzazuen eskatzen dizuegu (hegaluze eta sardinak oliotan, pasta, arroza, lekaleak, azukrea edota konpresak...). Aurtengo elkartasun kanpaina honetan jasotako gaiak datorren ostiralean bideratu ditugu **"Piztu Itxaropena"** karabana. Animatu eta lagundu!



HH2 eta 3 urtekoen gaurko danborrada Soroan.



HH5EKOEN DANBORRADA AURERATUA - Zurriolako zubia gurutzatu eta goiz-pasa ederra egin zuten herenegun HH5ekoek Parte Zaharrean. Besteak beste, Sarriegi plazan izan ziren eta bapateko danborrada jo zuten.

OHARRAK / AGENDA:

- LH3:** Ingeleseko antzerkiak. Urtarrilak 27, A taldea (15:10ean) eta B taldea (16:00etan). Urtarrilak 28, C taldea (16:00etan). Hurako antzerki aretoan.
- LH4:** Ordiziara irteera. Ilbeltzak 29. Egun pasa. Zirkularra datorren astean.
- DBH1-2:** 1. ebaluazioko emaitzak Alexian: Urtarrilak 22.
- Zurrimendi - Mendi taldea:** Urtarileko irteera. Ola-Aitzondo. Ilbeltzak 19.
- Kaldereroak:** Behin betiko data. Urtarrilak 31.
- Musika eta Dantza Eskola:** Urteko Batzarra. Otsailak 4. Deialdia.
- Kirol Elkartea:** Urteko Batzarra. Otsailak 14.
- Antzerki Eskola:** Urteko Batzarra. Otsailak 17.
- Asialdiko jarduerak haurrentzat:** Urtarrilak 17-19.